

## **Kultur Etxeak automailegu makina bat jarri du abian liburutegian**

*Langileek ematen duten zerbitzuaren osagarria izango da; horren bidez, materialak azkarrago hartu eta ilarak saihestu nahi dira*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 15a.** Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak liburuak automailegatzeko makina bat jarri du abian, beheko solairuan. Makina horren bidez, maileguak eta itzulketak egin ahal izango dira, mostradoretik igaro gabe. Horretarako, liburutegiko txartela baino ez da behar.

Horren bidez, nahi duenak materialak azkarrago hartu ahal izango ditu, eta ilarak saihestuko ditu. Baina liburutegiko langileek mailegu zerbitzua ematen jarraituko dute, eta automailegua zerbitzu osagarria izango da.

Maileguan hartutako dokumentuen historia ere kontsulta daiteke. Baina ezingo da DVDrik edo CDrik mailegatu, ezta berritzerik egin ere.

### **Normaltasunera itzuliko diren zerbitzuak**

Bestalde, hilabete honetatik aurrera, Kultur Etxeko zerbitzu batzuk normaltasunera itzuli dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Hemeroteca ireki da, eta aldizkariak maileguan har daitezke eta eguneroko prentsa kontsultatu.
- Edukierak egokitu dira, eta gaur egungo % 60ko mugaraino handitu dira kultur etxeetan, bai liburutegiko atal guztietan, bai ekitaldi aretoan eta gainerako aretoetan.
- Fotokopia zerbitzua berrabiarazi da eta komun guztiak berriz ireki dira.